

2016EKO URTARRILAREN 7AN GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamaseia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Gai-zerrendako puntuak aztertzen hasi baino lehen, Koldo Agirre jaunak bere desadostasuna azaldu du urtarrilaren 4an hirigintza batzordea egiteagatik, berak adierazi zuelako egun horretan joatea ezinezkoa izango zela. Hori adierazi ondoren, ulertu zuen hirigintza batzordeko lehendakariak deituko ziola, baina ez zuela deirik jaso, esan du.

Leire Artola, hirigintza batzordeko lehendakariak, ihardetsi dio esanez, berak ulertu zuela ordezkoa joango zela.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): Ez du inolako zentzurik, nik adibidez, Amaiari esatea hirigintza batzordera joateko, inoiz batzorde horretan egon ez denean.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beno, hirigintza batzordean Aitor Larburu zegoen eta hirigintzan tratatutakoa gero Gobernu Batzordetik pasatzen da. Oriamendi kaleko gaian presa dago, zeren eta enpresa bat dago oraindik kobratu ez duena egindako lanengatik. Ez dago inolako intentziorik ezer ezkutatzeko.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gai horrek urte bete itxaron badu, bilera atzeratzeagatik ez dut uste zerbait pasatuko denik.”

1.- AURREKO AKTA. 2015eko azaroaren 26ko akta onartzea.

2015eko azaroaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- ORIAMENDI KALEKO URBANIZAZIO OBRAK. Obren azken likidazioa egiteko Tekniko bat izendatzea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), 2016ko urtarrilaren 4ko hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

“2014ko abenduan amaitu ziren “Oriamendi kaleko hirigintza lanak” izeneko proiektuaren lanak, herri honetako alkateak sustatuta. Halaber, 2014ko uztailaren 30eko Alkatetza Dekretuaz, URBYCOLAN, S.L. enpresari esleitu zitzaion obra. Esleipenaren kopurua 489.827,88 euro izan zen (BEZ barne).

Administrazio-espeditentean, beste batzuen artean, honako dokumentu hauek daude:

1.- URBYCOLAN, S.L. enpresak 2015eko martxoaren 10ean Udalean aurkeztutako idazkia. Bertan, lanen harrera eskatzen du, 2014ko abenduaren 23ko erreferentzia-datarekin.

*2.-URBYCOLAN, S.L. enpresak 2015eko ekainaren 10ean Udalean aurkeztutako idazkia. Honekin batera 12 eranskin doaz. Eranskin horiek, laburbilduz, honela diote:
.- Obraren lizitazioan eta esleipenean gaur arte egin diren hainbat izapide, baita enpresak hautemandako akatsak ere. Azken horiek, proposamenean aurkeztu ziren.*

.- Obra egin baino lehen, kontratatutako enpresak zuzendaritzari emandako oharra, proiektuak zituen akatsei buruzkoak.

.- Obren garapena.

.- Obrak amaitzea eta horien harrera formal eza.

.- Kontratutako enpresak zuzendaritzari aurkeztutako likidazioa eta zuzendaritzak igorri zizkion oharra.

.- Zuzendaritza taldean zegoen Udaleko aparejadoreari likidazioa aurkeztea eta honen ustez ziurtagiria-likidazioak izan beharko lukeen kopurua (230.854, 46 euro. Nahiz eta, ez da kopuru hori espeditentean agertzen zena).

.- URBYCOLAN, S.L. enpresak Zuzendaritzaren likidazioa egokitze ez hartzearen arrazoiak.

.- Obren likidazioaren kopurua. Kontratutako enpresak kopuru hori 279.148,03 euro izango dela dio.

3.- 2015eko azaroaren 23an “Txostena eta Likidazioa. Oriamendi kaleko Hirigintza Lanak” dokumentua sartu eta erregistratu zen Udalean. Dokumentu hori Hektor Espin

Larreta eta Eñaut Muñoa arkitektoek sinatu zuten, biak aipatutako obraren zuzendaria. Bertan, honako gai hauek aipatzen dira (gai guztiak laburbildu egin dira, harrerari dagokion informazioa izan ezik, honek eduki ditzakeen konnotazioak direla-eta):

.- Obrak hasi baino lehen, kontratatutako enpresak egindako oharrak eta zuzendaritzarekin egindako bileratik ateratako ondorioak.

.- Obren garapena eta amaiera, hainbat aste atzeratu zirela argituz.

.- Obrak jasotzea: Izapide horren harira, bisita bat egin zen eta enpresaren ordezkariari honako hau jakinarazi zitzaion:

a.- "zuzendaritza ez zegoen ados zoruaren asfaltoarekin. Hutsune handiegia zeuden; aglomerante falta zela nabarmena zen; eta itxura, orokorrean, proiektuan aurreikusitakoarekin ez zetorren bat. Langilearen ziurtagaria eta irtenbide posibleak eskatu ziren. "

b.- "Hormigoizko lauzaren gainean jarri ziren jardinerak botatzen duten oxidoa garbitzea. Guretzat oxido horiek ez dira onargarriak; izan ere prozedura oso garesti bat egin zen oxidazio prozesu hori tailerrean egiteko eta obratik kanpo gertatzeko. Konpondu egingo zutela esan zitzaigun. "

Bisita hori noiz egin zen ez da adierazten; ezta jarduketa hauetan idazten den akta eta bertaratuek sinatzen dutena ere.

.- Halaber, Zuzendaritzak egindako obren likidazio-proposamena (579.710,47 euro) eta kontratatutako enpresak igorritakoa (783.785,17 euro) eransten dira, bien arteko desberdintasuna 226.384,85 eurokoa dela nabarmenduta. Jarraian, enpresaren jokatzeko modua baloratu da.

.- Prezio kontrajarrien desberdintasunak azaldu ondoren, likidazio proposamen bat egin da, partidaka eta kapituloka; hori, Zuzendaritzak jarraitutako irizpideen arabera egin da.

.- Azkenik, Zuzendaritzak beharrezkotzat hartzen dituen ondorio eta entsegu proposamenak jasotzen dira.

4.- Kontratuan erabili daitekeen araubide juridikoa honako hauek xedatzen dute: lizitazioa arautu zuten Klausulen Pleguak; azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko aurreikuspenak; 1098/2001 Errege Dekretuak onetsitako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araubide Orokorrak. Obren harrera eta likidazioari buruzko xedapenak ez dira jaso.

5.- Obrak amaitu zirenetik igarotako denbora gorabehera, aurreko ataletan aipatzen diren zuzendaritzaren eta enpresa esleipendunaren arteko desadostasunak ez dira desagertu.

6.- Era berean, beharrezkoa da egoera konpontzea; aipatutako araudiko aginduekin bat etorritz.

Azaldutako ordenean, Zuzendaritzaren eta kontratatutako enpresaren bertsioen arteko desberdintasunak ikusita, beharrezkotzat jo da xedatutako prozedurarekin jarraitzea. Halaber, harrera egitea bidezkotzat jotzen den kasuan, hori antolatzeke jarduketak egitea ere.(SPKLTBko 235 artikulua; Erregelamenduaren 164 artikulua eta horren hurrengoak; lizitazioa arautu zuen Pleguko 12. klausula).

7.- Kontratistak egindako obra kobratzeko eskubidea dauka, eta Udalak ordaintzeko beharra. Baina horretarako, egin den obra zein izan den zehaztu behar da. Arestian aipatu den bezala, espedientean hiru proposamen desberdin daude: (i) Zuzendaritzak proposatutako likidazioa, (ii) enpresa esleipendunak egindakoa eta (iii) Udaleko aparejadoreak egindakoa. Azken honek, obraren zuzendaritzan esku hartu du.

Eskumeneko zuzendaritzak idatzitako likidazio ziurtagiria prebalentzia ez da absolutua eta ez du udaleko administrazioa behartzen, likidazio hori benetazko obrarekin bat ez datorrela frogatzen bada. Balorazio hau, kontratatutako enpresak aurkezten duenarekin batera, igorri ahal daiteke.

Desadostasun horiek direla-eta, alderdietatik kanpo dagoen pertsona batek zer egin behar den zehaztea beharrezkoa da. Hortaz, Administrazioaren eginkizunak honako hauek dira: obrak jasotzea eta ordaintzea, euskarriak eta berrespen teknikoa aurkitzea. Nolanahi ere, hirugarren horrek ateratako ondorioen berri emango zaio Zuzendaritzari eta kontratatutako enpresari. Horrela, dagozkion oharrak egingo dituzte eta, azkenik, kontratazio organoak ebatziko du.

Horrenbestez, azaldutako aurrekari eta oinarriak aintzat hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegioko Ordezkaritzari eskatzea teknikari bat insakulazioz izendatzea. Teknikari horrek obrak eta kontratazio espedienteko dokumentazioa berrikusi ondoren, Beasaingo Oriamendi kaleko hirigintza lanen harrera onestea bidezkoa den erabakiko du. Edo, hala gerta dadinean, enpresak egin beharreko jarduketak zehaztuko ditu, obraren harrera egiteko. Obrak jaso ondoren, horien neurketa eta ziurtagiria egin beharko dira.

Bigarrena.- Izendatutako teknikariak emandako proposamenak edo irizpenak eskumeneko zuzendaritzari eta kontratatutako enpresari igortzea; interesatuak bidezkotzat jotzen dituen guztiak alegatzeko, azken aukeran, kontratazio organoak administrazio bidek ebatzi ditzan.

Hirugarrena.- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegioko Ordezkaritzak izendatutako teknikaria nor den esango dio Udalarari; horrela, Udalak teknikaria ofizialki izendatuko du eta zehaztutako betebeharrak egingo ditu.

Laugarrena.- Alkateari baimena ematea izendapen hori egiteko, eta adierazitako helburuak betetze aldera, beharrezko ebazpenak ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera aurkakoa izango da. Ez zarete obra zuzendaritzarekin egon. Ez da egin esandakoa, hau da, ASTAZALDIri deitu eta adostasun batera iristen saiatu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Obrak 2014ko abenduan amaitzen dira eta 2015eko martxoan obrak onartzeko eskaria egin zuten, baina ez zitzairen erantzunik eman. Ulertezina da obra-zuzendaritzak, uztailean bere txostena horretarako udal zerbitzuekin batera erabiltzen zuen aplikazioan utzi zuela esatea. Gu ekainean sartu ginen eta ezer egin gabe zegoen. Zalantzan jartzen zen obrak onartuta zeuden ala ez. Ez zaigu iruditzen oso zuzena denik lanak egitea eta ez ordaintzea. Gure ustetan diferentziak nabarmenak izan beharko lirateke, eta idatzita ezer ez egotea harrigarria da.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Orain proposatutakoaren ondorioz ateratzen denarekin Urbycolan ados egongo litzateke?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Izendatutako teknikoak emandako iritziaren berri kontratistari, obra-zuzendaritzari eta udal aparejadoreari emango zaio, bakoitzak deritzona adierazi ahal izateko. Dena dela harrigarria da baita ere Ur Kontsorzioa, kontratistak egindako likidazioarekin ados egotea eta ordaintzeko prest egotea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- AZKEN OBRA ZIURTAGIRIAK ONARTZEA:

- Murumendi ikastetxeko obrak

Ezagutzera eman da, Murumendi ikastetxeko azken ziurtagiria, hain zuzen ere, 112.693,48 €koa (BEZ barne), adieraziz esleitutakoarekiko %8,88ko desbideraketa dagoela.

Txosten teknikoaren arabera, desbideraketaren arrazoia ondorengoia izan da: zentroaren zuzendaritzak eskatutako hobekuntza beharrak, bestek beste, kirol pistako perimetro-pareten konponketa, egingo sarrerako zorua aldatzea (horrek ekarri du ur-sareak konpontzea), bideo-atezaina jartzea eta eskailerak inpermeabilizatzea.

Ezagutzera eman da aldi berean idazkaritzako txostena non adierazten den, emandako prozedura ez dela zuzena izan, hasieran kontratatutako prestazio osagarriak kontratazio berri baten helburu izan behar zirelako, hasierako kontratuaren %10a ez dutelako gainditzen. Hala ere egindako lanak ordaintzea dagokio.

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 112.693,48 €ko (BEZ barne), azken ziurtagiria onartzea eta kontratistari (UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.) ordaintzea.

- Alkartasuna Lizeoko obrak

Ezagutzera eman da, Alkartasuna Lizeoko azken ziurtagiria, hain zuzen ere, 135.702,41 €koa (BEZ barne), adieraziz esleitutakoarekiko %30,18ko desbideraketa dagoela.

Txosten teknikoaren arabera, desbideraketaren arrazoia ondorengoa izan da: zentroaren zuzendaritzak eskatutako hobekuntza beharrak, besteak beste, hiru gelatan leiho gehiago jartzea (14) eta komunak .

Ezagutzera eman dira aldi berean kontuhartzaitzako eta idazkaritzako txostenak non hurrenez hurren ondorengoa adierazten dute:

1.- Emandako prozedura ez da zuzena izan. Gertatutako desbideraketa egindako obra unitateen gehikuntzaren ondoriozkoa da eta kontratuaren hasierako prezioaren %10a gainditzen duenez, aldez aurretik kontratatu behar ziren prestazio berri horiek. Hala ere jurisprudentziak legitimatzen du egindako obrak kobratzea. Zertifikazioaren onespena kontratazio organoari dagokio eta Alkateari erreparoa ebatzea (kreditu egokia eta nahikoa dagoelako eta Udalbatzari ez dagokiolako gastua onartzea). Ziurtagiria onartutakoan, ordainketa etenda geratuko da Alkateak desadostasuna ebatzi arte. Hori guztia, erreparoen aurka hartutako erabakiaren berri Kontuen Epaitegiari eta Udalbatzari ematea eragotzi gabe.

2.- Emandako prozedura ez da zuzena izan, hasieran kontratatutako prestazio osagarriak kontratazio berri baten helburu izan behar zirelako, baina kasu honetan kontratuaren aldaketa egitea ezinezkoa izango zen, proiektuan aurreikusi gabeko partidak %10a baino handiagoak direlako. Hala ere egindako lanak ordaintzea dagokio, Kontu Epaitegiari eta Udalbatzari kontuhartzailearen eragozpen txostenaren berri ematearen kalterik gabe.

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 135.702,41 €ko (BEZ barne) azken ziurtagiria onartzea.

4.- HIRIGINTZA ARLOAN LAGUNTZA TEKNIKO ZERBITZUA KONTRATATZEA: baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Ezagutzera eman da, 2016ko urtarrilaren 4an hirigintza batzordearen proposamena, hain zuzen ere, hirigintza arloan laguntza tekniko zerbitzua, prozedura irekiaren bitartez kontratatzeari buruzkoa. Baldintza pleguaren berri eman da eta onartzen bada deialdi publikoa egitea proposatzen da, iragarkia GAOean argitaratuz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte proposamenarekiko:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera aurkakoa izango da, gure ustetan plantilan arkitekto plaza eratu behar delako jarraian hautaketa-prozesua egiteko eta ez zerbitzu horiek kontratu administratibo baten bitartez eman.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aparejadore lanpostua dugun bitartean ez zaigu iruditzen arkitekto plaza sortu behar denik.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU).
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2015-10-6ko GAOean argitaratutako deialdia baliorik gabe uztea, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, 2015-11-27an emandako 133/2015 Ebazpenaren arabera, lizitazioa bertan behera geratu denez.

Bigarren. Hirigintza arloan laguntza teknikoa prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa onartuz.

- 1.- *Prozedura:* Irekia publizitatearekin
- 2.- *Izapidetzea:* Arrunta
- 3.- *Lizitazio prezioa:* 49.800,00 € (BEZ kanpo) urteko.
- 4.- *Egikaritze epea:* Lau urte luzapenik gabe.
- 5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko agiriak:*

- Finantza-entitate batek igorritako lizitatzaillearen kaudimen-adierazpena.
- Arrisku profesionalagatik ordaindu beharreko kalteordainen aseguru, gutxienez 100.000,00€koa edo kasua bada, kontratatze konpromisoa esleipenduna izan ezker.

6.- Kaudimen tekniko eta profesionalari buruzko agiriak:

- Kontratuan parte hartu behar duten enpresaren barne edo ez dagoen pertsona tekniko edota unitate-teknikoen adierazpena, gutxienez goi mailako arkitekto bat duen lan taldea eskainiz.
- Enpresariaren eta enpresa zuzendaritzaren titulazio akademikoak eta zehazki kontratua exekutatu behar duenarena, hau da:
 - o Goi mailako arkitekto-titulazioa.
 - o Hirigintzan graduondoko titulua.
 - o Euskaraz ahoz komunikatzeko gaitasunari (3. hizkuntza eskakizunarien baliokidea) dagokion akreditazioa. Xehetasun hau Udal Euskaltegiak baieztatuko du, B kartazala irekia urretik.
- Azken bost urteetan emandako zerbitzu edota lanen zerrenda, kopuruak, datak eta lan horien jasotzaile publikoa nahiz pribatua azaltzen duena. Jasotzailea sektore publikoaren entitatea denean, egindako lanak eta emandako zerbitzuak eskumena duen organoaren ziurtagirierekin egiaztatuko dira. Jasotzailea pribatua denean, honek emandako ziurtagiri batekin edo hau falta denean enpresariaren aitopenearekin. Kasua bada, ziurtagiri hauek eskumena duen autoritateak, kontratazio organoari jakinaraziko dio zuzenean.

Pertsona juridikoa denean, bere helburu edo xedeak kontratuaren helburuarekin zer ikusia izan behar du, estatutu edo fundazio nahiz sozietate arauen arabera eta behar den moduan egiaztatu beharko da. Kasu honetan nominatiboki izendatu beharko da Beasaingo Udalerako zerbitzuak beteko dituen pertsona eta honek aipatutako baldintzak bete beharko ditu.

7.- Espediente: Baldintza Administrazioaren plegua eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratatzailearen profilean.

8.- Proposamen eredu: Baldintza Administrazioaren pleguan azaltzen dena.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan, 7,30etatik 14,30era bitarte.

10.- *Adjudikazio irizpideak:*

1. irizpidea: Proposamen ekonomikoa: gehienez 50 puntu.

Puntuazioaren kalkulua, formula hau erabiliz lortuko da:

50 x eskaintza merkeena
Baloratzen den eskaintza

- 2. irizpidea: Memoria teknikoa: 50 puntu.

Atal honetan, xehetasun hauek baloratuko dira:

- Kontratua modu zuzenean egikaritzeko proposatutako metodologia eta antolakuntza, lan prozedura zein izango den deskribapen egokia eginez, gehienera ere, 35 puntu:
 - o Bisitak egiteko eta azalpen edo informaziorako bileretara joateko disponibilitadea (egutegia): 5 p.
 - o Udalak eskatutako informazio edo kontsultari erantzuna emateko denbora, kontutan izanik, kasua bada, udal teknikoek informatzeko eta eskumena duen organoak ebazteko dituzten epeak: 15 p.
 - o Udal teknikoekin koordinazioa: 15 p.

- Udal zerbitzuek egin beharreko ordenantza urbanistiko berrien justifikazioa edota daudenen (Web orrian argitaratuta daude) hobekuntza: gehienera ere 15 p.

11.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* Plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

5.- ASEGURUEN KONTRATUA: Indarrean dagoen kontratuari buruz, aurkeztutako alegazioak ebaztea.

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

AURREKARIAK

I.- 2015-11-26ko datarekin, Gobernu Batzordeak ondorengo erabakia hartu zuen:

*“**Lehenik.** Beasaingo Udalak eta bere organismo autonomoak izan dezaketen arriskuen estaldurarako, Beasaingo udalaren eta SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ren artean 2015-02-27an sinatutako **luzapen-kontratua bertan behera uzteko prozesuari hasiera ematea.** Izan ere, Aseguru Konpainiak ez ditu errespetatu 2011-03-15ean egindako kontratuan jarritako baldintzak eta luzapen-kontratua hasierakoarekiko baldintzak aldatu gabe sinatu zen aipatutako datan. Aseguru etxeak higiezin ondasunen balorazioa egin ondoren, ekitaldi honetan izandako bi ezbeharretan ondarezko erantzukizun polizian, infraseguro-figura aplikatu du.*

***Bigarren.** Erabaki honen berri, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri ematea, jasotzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.”*

II.- Erabakia, 2015-12-3an jakinarazi zen eta 2015-12-21eko idatziaren bidez, SEGUROS LAGUN ARO, S.A. kontratua Bertan behera uzteko desadostasuna azaldu zen, arrazoi hauengatik:

- Ez baldintza pleguan ezta bi aldeek sinatutako dokumentuetan ere, ez da jasotzen “infraseguro” kasuan proportzionaltasun erregularik ezin dela aplikatu.*
- Ez dira eman Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuan, kontratua bertan behera uzteko aurreikusten diren xehetasunak*

OINARRI JURIDIKOAK

Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 23,2 artikulua honela dio:

*Kontratuak luzapen bat edo gehiago aurreikusi dezake, **baina beti ere kontratuaren ezaugarriak irauten duten bitartean aldatzen ez badira** eta esleitzerakoan konkurrentzia izan bada kontratu-iraupena kontutan izanik, luzapenak barne.*

2015-02-27an sinatutako kontratuaren luzapenaren ostean, Aseguru Etxeak infraseguro-figura aplikatu du ondarezko erantzukizuna polizian, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.k kontratuaren baldintzetako bat bete ostean (higiezinen balorazioa), ondorio hori aurreikusi gabe. Bera, ulertu daiteke Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 223g) artikuluan adierazitakoa eman dela, hau da, hasieran adostutako terminoetan zerbitzua emateko ezina.

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:

Lehenik. 2015eko azaroaren 26an Gobernu Batzordeak hartutako erabakia berrestea eta aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

Bigarren. Erabaki honen berri, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri ematea, adieraziz kontratua pribatua denez, bide zibileko epaitegietara jo dezakeela, aldeztu aurretik bide administratiboan erreklamazioa aurkezteko kalterik gabe.

Hirugarren. Beasaingo Udalaren eta bere organismo autonomoen aseguru ezberdinak kontratatzeko lizitazio berri bati hasiera ematea, prozedura irekiaren bitartez eta deialdi publikoa eginez, interesatuta daudenek aurkeztu ahal izateko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da egindako proposamena.

6.- BEASAINGO UDALAREN ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOEN ASEGURU EZBERDINAK KONTRATATZEA: Baldintza pleguak (administratiboa eta teknikoa) onartzea eta deialdi publikoa.

Aurreko puntuan erabakitakoaren arabera, ezagutzera eman da Beasaingo Udalaren eta bere organismo autonomoen aseguru ezberdinak kontratatzeko baldintza plegua administratiboa eta teknikoa, ezaugarri garrantzitsuenak hauek izanik:

1.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia publikitatearekin eta prozedura arrunta.

2.- Lizitazio prezioa: Ez da ezarri.

3.- Espedientea: Baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

4.- Behin betiko bermea: Adjudikazio aurrekontuaren %5a.

5.- Egikaritze epea: Bi urte luzatzeko aukerarik gabe.

6.- Kaudimen irizpideak:

- Erakunde finantzarioen aitortpen aproposa.

- Azkeneko bost urteetako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, elementu hauek sartuta: zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua). Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak igorritako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; hartzailea sektore publikoko Erakunde bat edo subjektu pribatu bat denean, honek igorritako ziurtagiri bidez eta ziurtagiri honen ezean, enpresariaren aitortpenaren bidez.

7.- Esleipen-irizpidea:

- **Eskaintza ekonomikoa: 100 puntu. (B gutun-azalean sartzeko)**

Puntuaziorik handiena eskaintza merkeenari emango zaio eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintzarik txikiaren eta baloratzen den lizitzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$Lp = Et/Le \times 100$$

Non-eta:

Lp: lizitzailearen puntuazioa

Et: eskaintzarik txikiena

Le: lizitzailearen eskaintza

8.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguan azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egun naturaletan, 7,30etatik 14,30etara.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bozketa egin da eta aho batez onartu dira, Beasaingo Udalaren eta bere organismo autonomoen aseguru ezberdinak kontratatzeko baldintza pleguak (administratiboa eta teknikoa) eta deialdi publikoa egitea, iragarkia GAOean argitaratuz.

7.- LAN EGUTEGIAK: 2016. urterako lan egutegiak onartzea.

2015-12-17ko Antolakuntza Batzordeko proposamenaren arabera, aho batez onartu dira 2016. urterako Udalaren sail ezberdinen lan egutegiak ordezkari sindikalekin adostutakoak, hau da:

- 1.- Bulegoko egutegia.
- 2.- Liburutegiko egutegia.
- 3.- Udaltzaingoko egutegia.
- 4.- Udaltzainburuaren egutegia.
- 5.- Kepa Amundarain jaunaren egutegia.
- 6.- Lan taldea eta kale garbitzailearen egutegia.
- 7.- Zaborbilketa (Angel Pérez) langilearen egutegia.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.